

11. ALDIZKARIA 2011

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Gaia:

Online gizarte sareak

Online gizarte sareak

Etxetik Internetera sartzen diren Euskadiko familien kopurua nabarmen handitu da azken 6 urteetan. Horrela, EUSTATen datuen arabera, 2003an familien % 33,3 zegoen egoera horretan, eta 2009. urte amaieran, aldiz, ehuneko hori % 59,6ra iristen zen.

Datu horiek ikusita, burura etortzen zaigun galderetako bat da hau: nola erabiltzen da internet euskal etxeetan? Estatistikei erreparatzen badiegu, biztanleriak gehien aipatzen dituen 10 webguneen artean 3 online gizarte-sare dauzkagu: tuenti laugarren postuan, facebook seigarrenean, eta youtube zazpigarrenean.

Anek 16 urte ditu eta betidanik ezagutu du Internet. Jaiotzetik da digitala da. Bere aitarekin hitz egiten duenean, eta hark azaltzen dionean lehen eskolako lanak egiteko etxean zeuden entziklopediak erabiltzen zituztela, edo liburutegira joaten zirela informazio bila, Anek entzun egiten dio eta historiaurreari buruz hitz egiten diola iruditzen zaio. Zer esanik ez bere kuadrilarekin komunikatzeko moduari buruz hitz egiten dionean. Nola bizi zitezkeen Internetik gabe? Galdetzen dio bere buruari harrিতuta. Egia esan, zaila egiten zaio imajinatzea bizitza duela urte batzuk alta eman zuen gizarte-sarerik gabe, bere koadri-la guztia, udako oporretan ezagutu zuen jendea, aurreko eskolako kideak, eta abar bertan sartuak baitaude.

Gizarte-sareak pertsonen taldeak dira, elkarren artean zerbait partekatu, komunikatu eta erlazionatzen direnak. Hori Interneten egiten

badugu, profil bat sortuta, ingurune birtualean, beste pertsona batzuekin elkarreragitea, partekatzea eta komunikatzea ahalbidetzen digun online aplikazio bat daukagu.



Online gizarte-sareek "Sei graduko tartearren teoria"-ri jarraitzen diote. Horren arabera, pertsona bat planetako beste batekin konektatua egon daiteke 6 pertsona ezaguneko kate baten bitartez.

Anek gustuko du gizarte-sarean sartzea ahal duen guztietan. 150 laguneko zerrenda dauka. Horien artean dago Garazi, eta hark Jon, Aitor eta Sara gehitu ditu. Ane, Garaziren lagunen zerrendan dagoenez gero, orain Jon, Aitor eta Sararekin ere konektatua dago.

Online gizarte sareak


Batzuetan sentitzen du bere gurasoek ez dutela ulertzen; jakina, beste garai batekoak dira eta!-esaten dio bere buruari. Behin baino gehiagotan galdetzen diote zergatik gustatzen zaion denbora pasatzea gizarte-sarean konektatua; ez du ezer izango bere lagunei kontatzeko, haiekin egon baita oraintxe bertan eskolan. Baina, gizarte-sarea hori baino gehiago da, pentsatzen du Anek.

Online gizarte-sareek aukera ematen dute denbora errealean mundu osoko jendearekin erlazionatzeko eta gizarte-harremanak erraztu eta bultzatu egiten dituzte. Aukera ematen dute interes berberak dituzten beste pertsona batzuekin pentsamenduak, sententzioak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko. Gainera, aukera ematen dute edukiak eta informazioa trukatu eta partekatzeko, argazkiak eta bideoak igo, ikus eta iruzkinak egiteko.

Baina, nola funtzionatzen du online gizarte-sare batek? Gizarte-sareek hainbat tresna dituzte:

- **Profila.** Nortasun birtuala da, hau da, gizarte-sarean pertsona ordezkatzen duena.
- **Horma, ohola edo morrua.** Erabiltzaileak iruzkinak idazteko gunea da; iruzkin horiek sarea partekatzeko aukeratu dituen pertsonak irakur ditzakete.
- **Bilatzailea.** Bilatu nahi den pertsonaren edo gizarte-taldearen izena idazten den gunea da.

- **Argazki-albuma.** Erabiltzaileak argazkiak erakusteko gunea da; argazki horiek sarea partekatzeko aukeratu dituen pertsonak ikus ditzakete. Gizarte-sarearen erabiltzaileak partekatzea erabakitzen duen pertsonak ikus ditzaketen argazkiak erakusten dituen gunea da.



- **Aplikazioa.** Parte-hartzea sustatzeko jarduerak dira (jokoak, inkestak, eta abar).
- **Txata.** Beste pertsona batzuekin denbora errealean elkarrizketa bat izateko aukera ematen duen aplikazioa da.

Online gizarte sareak

- **Gehitu kontaktua.** Nahita egiten den ekintza bat da. Horren bitartez, pertsona bat gehitzen da kontaktuen edo lagunen zerrendan.
- **Etiketatzea.** Argazki batean agertzen den pertsona baten izena ikusteko moduan jartzea da.



Esther eta Jon, Aneren ama eta aita, kezkatuak daude ez dakitelako beren alabak gizar-te-sarea modu arduratsuan eta kontzientean erabiltzen duen. Horregatik, nabigazio seguru egiten lagunduko dioten alderdiei buruz hitz egitea erabaki dute.

Lehenik, esan diote erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politika irakurtzea garrantzitsua dela esan diote, informazio hori behin baino gehiagotan nagikeriagatik irakurri gabe uzten da, baina oso erabilgarria da sarearen funtzionamendua eta datu pertsonalen tratamendua ezagutzeko.


Bestalde, argazki, bideo edo datu pertsonaletan informazio gehiegi ez ematea gomen datu diote, hori arriskutsua izan daiteke-elako asmo txarrak dituzten pertsonengana iristen bada. Gogoratu diote sare horietako askotan, bideo edo irudi bat esekitzean, jabetza intelektualeko eskubideak gizar-te-sareari lagatzen zaizkiola eta gainera pribatutasuna konfiguratzeko ez bada, Google edo Firefox bilatzaileetan bere izena idatziz gero, profilari buruzko informazioa agertuko da, hala nola bere izena eta argazkia.

Anek uste zuen bere aitak eta amak arriskua puztu egiten zutela. Gainera, profilean izenaren eta abizenaren ondoan argazki bat eta ikasten duen lekua jarriko ez balu, nola bilatuko lukete sarean berak ezagutzen dituen pertsonak lagun gisa gehitu ahal izateko?

Duela 2 aste bere zerrendan kontaktu berri bat gehitu zuen eta hasieran, nahiko pertsona jatorra zirudien, aurrez aurre ikusi eta elkar ezagutzea proposatu zion arte. Hala ere, ezetz esan zuenean, bere eskolan agertzearekin mehatxatu zuen. Hura sus-toa! Zorionez, azkenean ez zen agertu.

Online gizarte sareak

Gizarte-sare bat erabiltzean, erabilera-baldintzak eta pribatutasun-politika ezagutzea garrantzitsua da. Lehenengoak sarearen funtzionamenduari buruzko informazioa emango digu, hau da, pribatutasunari, segurtasunari, informazioa partekatzeko aukerari eta sarean bertan aurkezten den publizitateari buruz. Bestalde, pribatutasun-politikak datu pertsonalak biltzearen helburuari, segurtasun-neurriei eta prozedurei buruzko informazioa emango digu, eta datu horien isilpean gordeko dituela bermatu beharko du.



Online gizarte-sare batean baja ematean, argitaratutako edukiekin - hala nola, argazkiak, bideoak eta abar-zer gertatzen den jakin nahi izanez gero, atal horiek kontsultatu beharko dira.

Esperientzia horrek Aneri balio izan dio ordura arte garrantzitsuak iruditzen ez zitzaizkion alderdiei buruz pentsatzeko berriz planteatzeko. Pribatutasuna horietako bat da. Gertatutakoa kontatu dio bere amari, eta haren laguntzarekin, pribatutasuna konfiguratu du pertsona hori blokeatzeko, eta, horrela, sarean sartzen denean, ezin izango du ikusi. Era berean, partekatu nahi dituen gauzak bere lagunek bakarrik ikusteko prestatu du konfigurazioa, gauza bera egin du "etiketatua dagoen" gauzeekin. Horrela, ezin izango dira beregana iritsi ezagutzen ez dituen pertsonak. Gainera, bilaketa publikoa desgaitu du, horrela, nahiz eta pertsona batek bere izena bilatzaile batean idatzi, ez da bere profilaren aurrebistarik agertuko.

11. ALDIZKARIA. 2011

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Zuri gerta dakizuke


Zuri gerta dakizuke

Azken urteetan, hedatzeko gizarte-sareez baliatzen dira mehatxu informatikoak gero eta ugariagoak dira. Horren haritik, garrantzitsua da horri buruzko informazioa edukitzea, horien erabilera seguru bat egin ahal izateko.

Duela gutxi, Facebook kako gisa erabiltzen duten bi kode gaizto agertu dira.

Alde batetik, Asprox.N dugu, posta elektronikoen bitartez ekipora iristen den troiarra. Erabiltzaileari iruzur egiten saiatzen da, bere Facebookeko kontua spam banatzen ari dela esanez, eta, arrazoi horrengatik eta bere segurtasunerako, bere pasahitzak aldatu egin direla. Word dokumentu faltsu bat eranstean du, eta suposatzen da bertan erabiltzailearen pasahitz berria agertzen dela. Postari erantsitako artxiboak ohikoaren aldean desberdina den word dokumentu baten ikonoa agertzen du Facebook_details.exe deitua. Artxibo hori, benetan, "harra" da, eta behin exekutatu denean, .doc artxibo bat deskargatzen du, eta horrek testu-prozesadorea exekutatu du, eta erabiltzaileari sinetaraziz postari erantsitako jatorrizko artxiboa benetan ireki dela.

Troiarrak, behin exekutatu denean, beste fitxategi bat deskargatzen du. Horren funtzioa da portu erabilgarri guztiak irekitzea, eta hainbat hornitzailearen posta-zerbitzuetara konektatzea, horrela, al bait pertsona kopuru handienari spam bidaltzen saiatzen da.



Bestalde, Lolbot.Q berehalako mezularitzako programen bitartez banatzen da, hala nola MSN edo Yahoo! bidez, eta link gaizto bat biltzen duen mezu bat erakusten du. Lotura horrek "harra" deskargatzen du, eta horren funtzioa da Facebookeko kontua bahitzea eta erabiltzaileari bertan sartzea eragozteko. Gizarte-sarean sartzen saiatzen bada, mezu bat agertzen zaio kontua eten egin dela esateko, eta berriz ere aktibatzeke inkesta bat bete behar duela, eta hainbat gadget irabazteko aukera eskaintzen dio, hala nola iPad bat edo ordenagailu eramangarri bat, bere parte-hartzea sustatzeko.


Zuri gerta dakizuke

Hainbat galderari erantzun ondoren, sakelako telefono-zenbaki bat eskatzen da. Zenbaki horretan datu-mezuak jasotzen dira, eta as- tean 8,52 euroko gastua suposatzen dute. Izen-emate hori efektiboa egitean, biktimak pasahitz bat jaso beharko luke sakelako tele- fonoan, Facebookeko kontua berreskuratzeko.

Posta elektronikoa da ziber-delitugileen iru- zur egiteko edo birusak banatzeko ahaleginen protagonista nagusia, eta, beraz, oso garran- tzitsua da arrisku horiek saihesteko modua ezagutzea:

- Pasahitza berreskuratzeko mekanismoa modu seguruan konfiguratzea. Bi mekanis- mo daude: kontu alternatiboa eta galdera sekretua.
- Postan bidegabe sartzeak saihestea, pasahitz seguruak erabiliz, batez ere ordenagailu publikoetan, eta ziurtatu prozesuan zehar orrialdearen helbidea "https" moduan has- ten dela.
- HTML mugatzea, horrelako postetan errazagoa delako kode gaiztoak izatea.
- Antispam iragazkia erabiltzea. Iragazki horrek sarrera erretiluan mezu bazter- garriak agertzea saihesten du.
- Kontuz erantsitako fitxategiekin. Bidal- tzailea ezaguna bada ere, posta kutsatua egon daiteke. Exekutatu aurretik, antibirus eguneratu batekin aztertzea gomendatzen da.

- Mezu susmagarriak ezabatzea. Eta susmo txikiena baldin badago, bertan agertzen diren loturei ez jarraitzea.



11. ALDIZKARIA 2011

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Zure eskubidea da...

Honako hauetarako eskubidea duzu...

Online gizarte-sareak komunikatzeko, informatzeko eta pertsonen arteko konexiorako tresna egokiak dira.

Behar bezala erabiltzeko, ezinbestekoa da erabilera kontzientea eta arduratsua egitea; horrela, gune ireki, plural eta komunakizango dira. Azken batean, gizarte-topaketarako leku berriak dira.



Oso garrantzitsua da gizarte-sareen erabiltzaileek beren eskubide eta betebeharrei buruzko informazio argia edukitzea. Horren haritik, konstituzioan aitortutako hainbat eskubideren babesa modu berezian aztertu behar da:

- Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babesa.
- Datu pertsonalen babesa.
- Ekoizpen eta sortze literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako babesa, obren jabetza intelektual eta industria jabetza arautzen duten tresnen bitartez.

Zer eragin izan dezake pertsonaren pribatutasunean?

Sarean erregistratzeko eta **profila konfiguratzeko** unea erabakigarria da, erabiltzaileak argitaratu nahi duen informazioa baliotsi beharko baitu, eta hainbat arriskuren eraginpean jarri:

- Formularioan eskatutako datuak, derri-gorrezkoak ez badira ere, gehiegizkoak izatea. Erabiltzaileak kontzientea izan behar du datu jakin batzuk argitaratzeko duen inplikazioaz, bai bere buruarentzat, bai bere inguruko pertsonentzat.
- Datuen nazioarteko transferentzia. Europako lurraldetik kanpo kokatuta dauden plataformak daude, batez ere AEBn. Horrek esan nahi du pertsona bat gizarte-sare horretan erregistratzen denean, bere datuak beste herrialde bateko zerbitzu eta bulegoetara eraman daitezkeela. Kasu horretan, kontuan hartu behar da legeria desberdina dela, eta datuak tratatzen diren herrialdean babesa txikiagoa izan daitekeela.

Pribatutasun-maila konfiguratzeko unean, askotan, besterik hautatzen ez bada, gutxien mugatzen duen modalitatea egoten da aktibatua, eta, beraz, gizarte-sareko erabiltzaile guztiak ikus dezakete argitaratutako informazioa. Hautatutako pribatutasun-mailak eragina izango du norberaren intimitatearen babesean eta sare propioan bildutako pertsonen intimitatearen babesean.

Honako hauetarako eskubidea duzu...

Kontuan hartu beharreko beste une garrantzitsu bat **plataformaren ohiko erabilera** da. Gizarte-sare batean argitaratutako informazioaren edo edukien kontrola mugatua da, sarea erabiltzen duen edozein pertsonak argitara ditzakeelako hirugarren pertsonak agertzen diren bideoak, argazkiak eta irudien iruzkinak.

Kasu gehienetan, online gizarte-sareek aukera ematen diete bilatzaileei (Google, Firefox...) beren bilaketetan erabiltzaileen profiletako informazioa indexatzeko, eta, beraz, pertsona baten izena eta abizena idatziz gero, horren profila agertuko da bilaketaren emaitza gisa, harremanetan jartzeko informazioarekin eta lagunen profilekin batera.

Hauek dira beste arrisku batzuk:

- "Cookiak" instalatu eta erabiltzea, erabiltzaileak jakin gabe. Askotan, gizarte-sareek mota horretako fitxategiak erabiltzen dituzte, erabiltzaileari buruz eta gauzatzen duen nabigazio motari buruz informazioa gordetzeko aukera ematen dietelako. Horrela, honako hauek jakin daitezke, besteak beste: non sartzen den, zein gailu erabiltzen duen (finkoa edo mugikorra), zein eduki bisitatu duen, eta zenbat denbora eman duen orrialde bakoitzean.
- "Beacons" webguneak erabiltzea. Webgune batean edo posta elektronikoko mezu batean agertzen diren irudi nimiñoak dira, eta nork egin duen eta zer online eduki bisitatu duen jakiteko aukera ematen dute.

Lor daitekeen informazioa honako hau da: IP helbidea (Interneten konektatutako ordenagailu bat identifikatzen du), erabilitako sistema eragilea, posta elektronikoko helbideei buruzko informazioa, etab. Bildutako datuak nahi ez diren posta elektronikoen bidalketa masiborako (spam) edo baliozkotutako helbideak merkaturatzeko erabili daitezke.



- Publizitate hiperkontestualizatua jasotzea. Erabiltzaileei buruz dituzten datuen kantitate handiari esker, ia zehaztasun osoz pertsona horrek nahi izango dituen produktuak eta zerbitzuak zehaztu daitezke.
- Eskatu ez diren eta posta elektronikoko bidez jasotzen diren jakinarazpen komertzialak jasotzea (spam).
- Gizarte-sareko erabiltzaileen nortasuna ordezkatzeko.

Honako hauetarako eskubidea duzu...

Azkenik, **erabiltzaileak zerbitzuan baja eskatzen duen unean**, aintzat hartu behar da kontua bertan behera uzten bada ere, informazioa ez dela guztiz desagertzen.

Zer egin daiteke?

Egoera deserosoak saihesteko, honako hau egitea gomendatzen zaio erabiltzaileari:

- Webguneari buruzko informazio guztia irakurtzea. Informazio horretan azalduko digute nortzuk diren haren titularrak, eta baita datuak zertarako eskatzen diren ere.



- Goitizenak edota "nickname" pertsonalak erabiltzea Internet bidez jarduteko, beren bizitza pertsonalaren eta lanaren segurtasuna zalantzan jarriko ez duen benetako "nortasun digitala" izan dezaten.
- Gizarte-sareko erabiltzaile-profilean pribatasun-maila behar bezala konfiguratzea, erabat publikoa izan ez dadin, baizik eta erabiltzaileak aldeztu aurretik "lagun" edo "zuzeneko kontaktu" gisa katalogatu dituen pertsonak baino ez dezaten izan haren profilean publikatutako informaziorako sarbidea.

- Erabiltzaile-profilean harreman fisikorako informaziorik ez argitara ematea, hots, edozein pertsonak erabiltzailea non bizi den, non egiten duen lan edota aisialdian normalean nora joaten den jakitea ahalbidetzen duen informaziorik ez.


- Ikus-entzunezko edukiak edota eduki grafikoak profilean argitaratzean kontu handiz ibiltzea, horrelako kasuetan inguruko zenbait pertsonaren pribatasuna eta intimitatea arriskuan jartzen baitituzte.



Beharrezkoa izanez gero, badaude salatzeko metodoak pribatasuna urratzen dela sentitzen duten erabiltzaileentzat:

Honako hauetarako eskubidea duzu...

- **Barneko salaketa-sistemak:** horien bitartez, erabiltzaileak sarearen administratzaileari jakinarazi diezaioke bere baimenik gabe bere irudia agertzen den argazki bat argitaratu dela, eta bere eskubideen aurkakotzat jotzen duen iruzkin, bideo edo irudiren bat kentzeko eska dezake. Horrela, salatutako edukia bertan behera uzten da, eta argitaratu duenari jakinarazten zaio salatzailearen eduki gehiago argitaratzeko baimenik ez duela. Behin eta berriz eginez gero, normalean kontua ezabatzen zaio.



- **Informazio-prozedurak:** hainbat gizarte-saretan, multimedia edukiak (argazkiak eta bideoak) argitaratu nahi dituzten erabiltzaileei jakinarazten zaiei haien nahiz hirugarren pertsonen izan ditzakeen ondorioak.

- **Edukien borondatezko zaintza:** badaude edukien egokitasuna zaintsez arduratzen diren erabiltzaile boluntarioen taldeak dituzten gizarte-sareak.
- **Adina identifikatzeko software-aplikazioak:** gizarte-sareak erabiltzen dituzten adingabeak zaintze aldera, sareek hizkuntzaren erabileran, esamoldeetan, idazteko estiloan, eta beste alderdi batzuetan oinarrituta erabiltzailearen gutxi gorabeherako adina atzematen duten programak erabiltzen dituzte, soilik helduentzako diren gizarte-sareak bisitatu dituzten adingabeak ote diren jakiteko, nahiz adingabeen itxurak egiten dituzten helduak ote diren jakiteko.

Zer eragin izan dezake edukien gaineko jabetza intelektualeko eskubidean?

Pertsona bat gizarte-sare batean alta emateko erregistratzen den unean, gizarte-sarearekin izango duen harremana arautuko duten erabilera-baldintzak onartzen ditu. Une hori funtsezkoa da, hain zuzen ere askotan jabetza intelektualaren babesarekin lotutako erabilera-baldintzak onartzen direlako, eta horien bitartez ustiapen-eskubideak gizarte-sareen esku uzten dira osorik, 5 urteko legezko gehieneko epean askatasun osoz erabil ditzaten. Bigarren une erabakigarria gizarte-sarea **erabiltzen denean** eta eduki propioak edo besteenak argitaratzen direnean gertatzen da. Hainbat egoera izan daitezke:

Honako hauetarako eskubidea duzu...

- Argitaratzen diren edukiak erabiltzailearenak izatea. Horrelakoetan, kasu gehienetan ustiapen-eskubideak lagatzen dizkio gizarte-sareari 5 urteko gehieneko epean, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
- Argitaratutako edukiak hirugarren pertsonak izatea. Kasu horretan, kontuan hartu behar da gizarte-sarea bitartekari soila dela, eta argitaratzeko erantzukizuna erabiltzailearena da.



Zer egin daiteke?

Egoera kaltegarriak saihesteko, honako hau egitea gomendatzen zaie gizarte-sareen erabiltzaileei:

- Plataformak webguneetan erabiltzaileen eskura jartzen dituen pribatutasun politika eta erabilera-baldintza orokorrak berrikus-tea eta irakurtzea.
- abetza intelektualeko eskubide nahikoak dituzten edukiak erabili eta argitaratzea soilik.

Jabetza intelektualeko eskubideak baimenik gabe ustiatuz gero, erabiltzaileak gizarte-sarearen administratzaileei jakinarazi diezaieke barruan bertan, egiazta dezaten eta, hala badagokio, edukia ezaba dezaten.